



OSALAN

*Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea*
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

PREBENTZIO DELEGATUA

ETA ARRISKUEN PREBEN-
TZIOARI BURUZKO BESTE
GAI INTERESGARRI BATZUK



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Enplegu eta Gizarte
Politiketako Salla
Departamento de Empleo
y Políticas Sociales



www.osalan/euskadi.net

Aurkibidea

■ Zein da Prebentzio Delegatua?	2
■ Zeini dagokio enpresan langileak ordezkatzeari?	3
■ Nola aukeratzen dira Prebentzio Delegatuak?	3
■ Zenbat Prebentzio Delegatu behar dira nire enpresan?	4
■ Nola zenbatzen da plantilla osoa?	5
■ Zer prestakuntza eduki behar du Prebentzio Delegatuak lan arriskuen prebentzioaren alorrean?	5
■ Enpresaburuarentzat mesedegarri al da enpresak Prebentzio Delegatua edukitzea?	6
■ Sindikatuta ez banago, izan al naiteke Prebentzio Delegatu?	7
■ Eta aldi baterako lanerako enpresa bateko langile banaiz?	7
■ Zer da izendatutako langilea?	8
■ Prebentzio Delegatua eta izendatutako langilea pertsona bera izan daiteke?	9
■ Zer da Segurtasun eta Osasuneko Batzordea?	10
■ Zer da prebentzio plangintza?	11
■ Nola zehazten da plangintza?	12
■ Zer da arriskuen ebaluazioa?	12
■ Nire lanpostuaren arriskuen ebaluazioa egiten duenak, kontsulta egin behar al dit, ezinbestean?	13
■ Izan al dezaket nire lanpostuaren arriskuen ebaluazioaren berri?	13
■ Arriskuen ebaluazioa behin betikoa al da?	14
■ Lan arriskuen prebentzioan ba al dago hobekuntzak eta iradokizunak proposatzeko aukera?	15
■ Eta zer egin dezaket nire lanpostuari dagokion arrisku egoera bat salatu nahi badut?	16
■ Nire lanpostua utzi al dezaket berehala arrisku larriren bat egongo dela ohartzen banaiz?	17
■ Ba al daukat norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeari uko egiterik?	17
■ Lan istripu bat badaukat, izan al dezaket istripuari buruzko txostenaren berri?	18
■ Lan ikuskatzaileak edo Osalaneko teknikariak nire enpresara badatoz, zeinek lagun diezaieke?	19
■ Eta bisitaldiaren unean Prebentzio Delegaturik ez badago?	19
■ Zer jakin behar dut nire prestakuntzari buruz?	20

01

Zein da Prebentzio Delegatua?

Langileen ordezkaria da, eta eginkizun espezifiko batzuk ditu lan-arriskuen prebentzioaren alorrean, honako helburu hauek betetzeko:

- Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, prebentzio-lana hobetzeko.
 - Lan-arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeko, langileen lankidetzaren sustatzea eta bultzatzea.
- 2
- Enpresaburuak hari Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 33. artikuluan jasotako erabakiei buruz kontsulta egitea, erabaki horiek gauzatu aurretik.
 - Lan-arriskuen prebentzioaren alorreko araudia betetzen dela zaindu eta kontrolatzea.





O2 Zeini dagokio enpresan langileak ordezkatzeari?

50 langile baino gutxiago eta 10 baino gehiago dituzten enpresetan edo lantokietan, langileen ordezkariari dagokie langileak ordezkatzeari. Sei eta hamar langile arteko enpresetan edo lantokietan ere langileen ordezkari bat egon daiteke, horrela erabakitzen badute langileek gehiengoz.⁽¹⁾

6 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, langileek aukera izango dute euren artean lan-arriskuen prebentzioaren alorreko ordezkaria hautatzeko.

O3 Nola aukeratzen dira Prebentzio Delegatuak?

Langileen ordezkariak euren artean izendatuko dituzte prebentziorako eskuordeak, aurreko artikulua ezarri ordezkaritza-organismoen esparruan....

30 langile arteko enpresetan, langileen eskuordea izango da prebentziorako eskuordea. 31 langiletik 49rako enpresetan, prebentziorako eskuorde bakarra egongo da, langileen eskuordeek euren artean hautatuko dutena.

... hitzarmen kolektiboetan beste sistema batzuk jaso daitezke, prebentziorako eskuordeak izendatzeko, betiere, horiek izendatzeko ahalmena langileen ordezkariari edo langileei euren dagokiela bermatuta.⁽²⁾



04

Zenbat Prebentzio Delegatu behar dira nire enpresan?

Proportzionaltasun-irizpide bati jarraiki zehazten da kopurua, enpresaren langile kopurua oinarritzat hartuta. Langileen Estatutuan antzeko sistema bat dago ezarria, enpresa-batzordeetako langile-delegatuak izendatzeko (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 35. artikulua).

4



05 Nola zenbatzen da plantilla osoa?



Urtebetetik gorako iraupen jakineko kontratuak dituzten langileak plantillako langile finko gisa zenbatuko dira

Urtebete arteko epe-mugadun kontratua dutenak zenbatuko dira, izendapenaren aurreko urtean lanean egindako lanegunen arabera. Lanean egindako berrehun egun edo zatikiko, langile bat gehiago zenbatuko da.⁽³⁾

06 Zer prestakuntza eduki behar du Prebentzio Delegatuak lan arriskuen prebentzioaren alorrean?

Euskal Autonomia Erkidegoan, sindikatuak eta Confebasketik lanbide arteko akordio bat egin dute prestakuntza arautzeko, eta Osalanek kudeatzen du prestakuntza hori.

Oinarrizko prestakuntza horrek bi zati ditu:

- 1)** Eskubide eta betebeharrei buruzko arauzko prestakuntza, sindikatuen eskutik.
- 2)** Prestakuntza teknikoa, Osalanek baimendutako zentroen eskutik.

Eraikuntzaren sektoreko indarreko hitzarmen orokorrean zehaztuta dago eraikuntza-sektoreko Prebentzio Delegatuen prestakuntza.



3. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 35.4. artikulua.



07

Enpresaburuarentzat
mesedegarri al da enpresak
Prebentzio Delegatua
edukitzea?

Bai, honako arrazoi hauengatik:

6

- ∴ Prebentzio Delegatuen eskumena da enpresaren zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea prebentzio-ekintza hobetzeko (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 36.1 artikulua).
- ∴ Enpresaburuei aukera ematen die langileei **kontsultatzeko betebeharra** betetzeko, eta langileei, berriz, lan-arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten gaitan **parte hartzeko eskubidea** betetzeko (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 33. eta 34. artikulua).





08

Sindikatuta ez banago,
izan al naiteke Prebentzio
Delegatu?

Bai

Lan-arriskuen prebentzioaren alorrean eginkizun
espezifikoak dituen langileen ordezkaria da Prebentzio
Delegatua.

09

Eta aldi baterako lanerako
enpresa bateko langile
banaiz?

7

Aldi baterako lanerako enpresa batek langile bat jartzen badu enpresa erabiltzailearen esku enpresa horretan lan egin dezan, enpresa erabiltzaileak horren berri emango die Prebentzio Delegatuei, garatu beharreko lanpostua, prebentzio-arriskuak eta -neurriak eta langileak jasotako informazioa eta prestakuntza zehaztuta. Langileak ordezkari horiengana jo dezake, errege-dekretu honetan, eta, oro har, lan-arriskuen prebentzioari buruzko legerian, onetsitako eskubideak betez.⁽⁴⁾

⁴. Aldi baterako lanerako enpresen esparruko langileen laneko gutxieneko segurtasun-eta osasun-xedapenei buruzko 216/1999 Errege Dekretuaren 4.3 artikulua.

10

Zer da izendatutako langilea?

Enpresaburuak zenbait aukera dauzka enpresaren prebentzioa antolatzeko; besteak beste, langile bat edo batzuk izenda ditzake enpresako prebentzio-jardueraren ardura hartzeko.

Izendatutako langileek beharrezko gaitasuna, denbora eta bitartekoak eduki beharko dituzte, eta kopuruan ere nahikoak izango dira enpresaren tamaina, langileek aurre egin beharreko arriskuak eta langileak enpresan banatzeko modua kontuan hartuta.



11

Prebentzio Delegatua eta izendatutako langilea pertsona bera izan daiteke?

Izendatutako langilea eta Prebentzio Delegatua figura desberdinak dira. Prebentzio Delegatuak langileen ordezkariak hautatzen dituzte, langileen ordezkarien artetik, eta izendatutako langilea, aldiz, enpresak hautatzen du enpresaren prebentzio-jardueraren ardura hartzeko.



12 Zer da Segurtasun eta Osasuneko Batzordea?

parte hartzeko erakunde parekidea eta kide anitzekoa da, lan-arriskuak prebenitzeko arloan enpresaren jardunak erregulartasunez eta aldizkakotasunez kontsultatzeko.

Batzordea osatuko dute, batetik, prebentziorako eskuordeek, eta, bestetik, enpresaburuak edota beraren ordezkariak, prebentziorako eskuordeen kopuru berean.⁽⁵⁾

Gai jakin batzuetarako, beste pertsona batzuek ere parte har dezakete, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

10

Nahitaezkoa da 50 langile edo gehiago dituzten enpresa edo lan-zentroetan.

Hiru hilean behin bilduko da, eta ordezkaritzetako batek eskatzen duen bakoitzean. Bere funtzionamendu-arauak edukiko ditu, eta aktetan jasoko da bileretan aztertutakoa.

Segurtasun eta osasuneko batzordedun zenbait lantoki dituzten enpresek aukera dute langileekin zentro arteko batzordearen sorrera hitzartzeko, hitzarmen horretan batzordearen eginkizunak jasota.



5. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 38.1 artikulua.



13

Zer da prebentzio plangintza?

Dokumentu bat da, eta horri jarraiki, enpresaburuak dagokion prebentzio-jarduera planifikatzen du arriskuak ezabatzeko edota kontrolatu eta murrizteko, lehentasun-ordena baten arabera arriskuen tamainaren eta arriskuen eraginpean dauden langileen kopuruaren arabera.

Arriskuen ebaluaziotik, istripuei buruzko ikerketetatik, aldizkako ikuskapenetatik, larrialdi-planetik, produktuen segurtasun-orrietatik, darabiltzaten makina eta ekipamenduetako jarraibide-eskuliburuetatik eta abarretik ateratzen dira neurri horiek.

Prebentzio Delegatuak parte hartu behar du prebentzio-plangintza horretan, eta hortaz, kontsulta egin behar zaio.

Plangintzak urtebetetik gorako aldi bat ere har dezake eraginpean, baina kasu horretan urteko jarduera-plana ezarri beharko da.

Larrialdi-neurriak, osasunaren zaintza eta langileentzako prebentzio-alorreko informazioa eta prestakuntza bilduko dira prebentzio-jardueraren plangintzan.



14

Nola zehazten da plangintza?

Prebentzio-jarduera bakoitzari gauzatzeko epea, arduradunak eta jarduerak betearazteko behar diren giza baliabideak zein baliabide materialak esleituz.

12

15

Zer da arriskuen ebaluazioa?

Saihestu ezin izan diren arriskuen magnitudea kalkulatzeko prozesua da lan-arriskuen ebaluazioa, beharrezko informazioa lortuta enpresaburuak erabaki egoki bat hartu ahal dezan prebentzio-neurriak hartzeko premiari buruz, eta hori horrela, hartu beharreko neurriei buruz.⁽⁶⁾

Ebaluazioaren emaitzak dokumentu batean jasotzen dira, eta bertan zehazten dira garatzen dituzun zereginak, erabiltzen dituzun materialak eta ekipamenduak, erabili behar dituzun norbera babesteko ekipamenduak, zure lanpostuan atzemandako arriskuak eta arrisku horiek ezabatzeko edo murrizteko hartu beharreko neurriak.

6. Prebentzio-zerbitzuen erregelamenduaren 3.1 artikulua.

16

Nire lanpostuaren arriskuen ebaluazioa egiten duenak, kontsulta egin behar al dit, ezinbestean?



Enpresaburuak ordezkariari kontsultatu beharko die ebaluazio-prozeduraren inguruan eta, ordezkariak ez badago, langileei.

Bestetik, langileen eskutik jasotako informazioa hartuko du kontuan.

17

Izan al dezaket nire lanpostuaren arriskuen ebaluazioaren berri?

13

Enpresaburuak honako hauei buruzko informazioa emango die langileei:

- ∴ Laneko segurtasun eta osasunerako arriskuak, bai enpresa osokoak, bai lanpostu-mota edo eginkizun bakoitzekoak.
- ∴ Arrisku horiei aplikatzekoak diren babes- eta prebentzio-neurriak eta -jarduerak.
- ∴ Larrialdi-neurriak.

Ordezkarien bidez eman dakieke informazioa langileei; dena den, langile bakoitzari zuzenean eman beharko zaio bere lanpostuari edo zereginari eragiten dioten arrisku espezifikoari buruzko informazioa, eta, horrez gain, arrisku horien aurrean hartu beharreko babes- eta prebentzio-neurriak jakinarazi beharko zaizkio.



18

Arriskuen ebaluazioa
behin betikoa al da?

Ez

14

Honako hauetako bat gertatzen bada berraztertu behar da:

- ∴ Lan-ekipamendu berriak eskuratzen eta martxan jartzen badira.
- ∴ Produkzio-prozesura substantzia edo konposatu kimiko berriak ekartzen badira.
- ∴ Lantokiak egokitzen badira.
- ∴ Lan-baldintzak aldatzen badira.
- ∴ Langile berri bat enpresan sartzen bada, eta haren ezaugarri pertsonalen edo egoera biologikoaren ondorioz lanpostuko baldintzekiko bereziki sentikorra bada.
- ∴ Langileen osasuna kaltetuta atera bada, honako hauek kontuan hartuta: osasunerako kalteen arrazoiei buruzko ikerketa, arriskuak murrizteko jarduerak, arriskuak kontrolatzeko jarduerak, egoera epidemiologikoari buruzko azterketa, eta abar.

- ∴ Egindako kontrolek, osasunaren zaintza barne, prebentzio-jarduerak desegokiak edo urriak izan daitezkeela atzematen badute.
- ∴ Xedapen espezifiko batek hori ezartzen badu.
- ∴ Eta betiere enpresak eta langileen ordezkariak adostutako aldizkakotasunarekin.

19

Lan arriskuen prebentzioan ba al dago hobekuntzak eta iradokizunak proposatzeko aukera?

Langileek eskubidea izango dute, enpresaburuari zein ... partaidetza-eta ordezkaritza-organismoak proposamenak egiteko, enpresaren segurtasun eta osasunaren babes-mailak hobetze aldera.⁽⁷⁾

15

Zure iritzia oso garrantzitsua da.



7. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 18.2 artikulua.



20 Eta zer egin dezaket nire lanpostuari dagokion arrisku egoera bat salatu nahi badut?

Zure laneko arrisku-egoeraren bat salatu nahi baduzu, zure ordezkarien bitartez enpresari horren berri ematea duzu onena.

Egoerak bere horretan jarraitzen badu, konponbiderik gabe, zuk edo zure ordezkariak Lan Agintaritzara jo dezakezue salaketa aurkeztera, honako hauen bitartez:

- 16 ∴ Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Ordezkaritza.
- ∴ Laneko Ikuskatzailetza.
- ∴ Osalan.



21

Nire lanpostua utzi al dezaket berehala arrisku larriren bat egongo dela ohartzen banaiz?

Arrisku larri edo berehalako bat zer den ez dago ongi zehaztuta. Hobe duzu zure ordezkariarekin harremanetan jartzea, hark jakin behar du-eta egoera horietan zer egin.

22

Ba al daukat Norbera Babesteko Ekipamenduak erabiltzeari uko egiterik?

17

Ez

Langileen ardura da, euren prestakuntzaren arabera eta enpresaburuaren jarraibideei jarraituz:

- ∴ Norbera babesteko ekipamenduak behar bezala **erabiltzea** eta zaintzea.
- ∴ Norbera babesteko ekipamendua erabili ondoren dagokion lekuan jartzea.
- ∴ Erabilitako norbera babesteko ekipamenduak akatsik, anomaliarik edota kalterik izango balu eta horren eraginez langileari irudituko balitz, babesteko eraginkortasuna galarazten duela, hierarkia-mailan goian duen hurrengoari berehala jakinaraztea.

23 Lan istripu bat badaukat, izan al dezaket istripuari buruzko txostenaren berri?

Enpresak edo prebentzio-zerbitzuak barne-txostena egin behar du istripuaren ikerketari buruz, istripua berriz ere ez gertatzeko neurri zuzentzaileak proposatuta, eta langileari emango dio horren berri, zuzenean edo Prebentzio Delegatuaren bitartez.

Osalanek edo **Laneko Ikuskatzaitzak** ere ikerketan parte hartu badute, Lan Agintaritzara jo dezakezu txosten hori eskatzera.



24

25

26 Zer jakin behar dut nire prestakuntzari buruz?

20

- ∴ Garrantzizko eta beharrezko ekintza da, enpresaburuak planifikatu eta gauzatu behar duena.
- ∴ Zure zereginekin, zure lanpostuarekin eta alderdi orokorrekin zerikusia duten alderdiak hartu behar ditu aintzat, hala nola larrialdi-plana, norbera babesteko ekipamenduak, produktuak eta abar.
- ∴ Teorikoa eta praktikoa izan behar du, nahikoa eta egokia, eta beharrezkoa denean eguneratu behar da (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 19. artikulua).
- ∴ Enpresak eman behar du, bere bitartekoak erabiliz edo kontratatutako prebentzio-zerbitzuaren bitartez.
- ∴ Dokumentatuta egon behar du eta, horretarako, enpresak prestakuntza hori erregistratu eta jaso behar du, prestakuntzaren edukiak eta iraupena jasota.
- ∴ Laneko orduetan eman behar da edo, bestela, konpentsatu egin behar da.

